

Hitzaurrea



entword Webster idazle eta euskal literaturaren ikertzaileak zenbait herri-ipuina bildu zituen bere bi liburu hauetan: *Basque legends* eta *Ipuinak* (I eta II). Eta guri, hari bezala, herri-ipuinekin duten ahozketasun-oihartzunak koski egin eta horren fruituak *Behinola* honetan emango ditugu.

Lehenik eta behin, *Hitza eta pitz* atalean, MIEL ANGEL ELUSTONDOK Joxe Arratibel idazle handiari egindako elkarrizketa jasotzen da, non Arratibelen biografia birpasatzen den, *oroitzen al zara...?* hitzen aitzakiarekin.

Ondoren, *Hitza*-n PATXI ZUBIZARRETAk moldatutako bi ipuina ematen dira, biak ala biak oso lotuak daude. Pierre Lafitten, *Miseria gaixoa* ipuina, (*Historio-misterio edo Eiherezainaren ipuina hautatuak*, Herria-Egan, 1990) eta *Errementaria eta deabruak* (Teresa Duran & Jesus Gagan, *El herrero y los demonios*, La Galera, 1994. Esteve Casponceren *El ferrer de Figueres* ipuinean oinarritutako bertsoa) ipuina eskaini dizkigu Patxi guztion gozamenerako.

Hizpide sailean YOLANDA ARRIETAK eta PELLO AÑORGAK egingo dute topo. Lehenengo bere sormen-bideari begira jarriko da, ahozketasunak haren barneko irudiak eraikitzeke izan zuen garrantzia azpimarratuz. Irudi horiek guztiak bere memoria eta irudipenaren oinarri sendoak dira. Bere aldetik, Pellok, besteak beste, bere artikuluan esaten du liburua, berez, orokorrean, ez dela sortu ozenki irakurtzeko, ez duela ahozketasuna landuta. Haurrak ahozketasunaren gertu sentitzen dira Pelloren ustetan, horrela, haurrak liburueta hurbildu nahi baditugu, liburuak ahozketasunaren iturritik edan beharko dute. Baldintza hori bermatzen duten zenbait adibide ematen ditu Añorgak.

IBON EGAÑAK Galtzagorri Elkarteak prestatutako azken proiektua zertan datzan azalduko digu *Hitza*-an. Haur- eta gazte-literaturako lan klasikoekin osatutako liburu sorta izango da *Klasi Klasikoak*, ondare unibertsaleko klasikoak nahiz euskal HGL-ko klasikoak argitaratu edo berrargitaratzea xede duena. 4 eta 16 urte bitarteko irakurleei euskarazko obra kanonikoak eskura jartzea eta atzerriko klasikoekin itzulpen egokiak eskaintzea du helburu nagusia.

Euskaraz argitaratutako zenbait libururen erreseina aurkituko ditugu *Hitza* beste atalean. JAVIER ROJOREN erreseinek lehenengo aldiz argia ikusiko dute *Behinola*; hortaz, gure ongiatorri zintzoena.

Azkenik, *Hitza* sailean JUAN KRUIZ IGERABIDE ahozketasunaren inguruan solastuko zaigu. Bertan, mendebaldeko literaturak eta ahozketasunak Homero, Biblia eta

beste zenbait iturri izan dituela esango digu, baina gaur egungo gazteek ez dituztela horiek erreferentziatzen. Halere, antzinako tradizioak landu beharko liratekeela uste du. Akaso, ahozketasun globalizatu baterantz goazela dio egileak.

Bukatzeko, gure eskerrik onenak **IBAN BARRENETXE**ari egindako lanagatik, haren irudiekin *Behinola* hau edertzeagatik. Eta gure zorion beroenak hari, Iban Barrenetxea ilustratzaileari, izan ere, denbora gutxian haren *Bombástica Naturalis (A buen paso*, Madril, 2010) liburuarekin, 2011. urte honetan, Bratislavako bienalean ohorezko plaka lortu baitzuen, eta handik gutxira Ilustrazio Euskadi Saria jaso baitu. Zorionak!

Azkenik, gure zorion beroenak **MIREN AGUR MEA**berri 2011ko Haur- eta Gazte-Literatura Euskadi saria irabazi baitu *Errepidea* (Erein, Donostia, 2010) lanarekin.